


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

PSIKOLOGO FORENTSEAREN ADITU TXOSTENA: GURASO ALIENAZIO SINDROMEA EZBAIAN

ZUZENBIDE FAKULTATEA

Zuzenbide Gradua
Gradu Amaierako Lana
2020-2021 ikasturtea

Egilea: MALENE SAN PEDRO ARIAS
Zuzendaria: GOIZEDER OTAZUA ZABALA

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	6
2.	PSIKOLOGO FORENTSEAREN FIGURAREN NONDIK NORAKOAK.....	8
2.1.	Psikologo forentsearen kontzeptua.....	8
2.2.	Psikologo forentsearen parte hartzea prozesu ezberdinetan.....	9
2.3.	Epaileek psikologo forentsearen peritu-txostenaren froga-balioa.....	10
3.	GURASOEN ALIENAZIO SINDROMEA.....	12
3.1.	Sorrera, kontzeptua eta ondorioak.....	12
3.2.	Gurasoen Alienazio Sindromea joko-zelai: sindromea ala ez? Adituen ildo ideologikoak.....	13
3.3.	Gurasoen Alienazio Sindromeari buruzko araudia Espainiako Estatuan: delitua da?.....	16
3.4.	Gurasoen Alienazio Sindromea zuzenbide konparatuan.....	18
3.4.1.	Argentinko araudia.....	18
3.4.2.	Brasileko araudia.....	19
3.4.3.	Mexicoko araudia.....	20
3.5.	Guraso alienazio sindromea jurisprudenzian: begirada bat Estrasburgo zein Espainiako auzitegiei.....	20
3.5.1.	Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia ildoak.....	21
3.5.1.1.	Mincheva Bulgariaren kontra.....	21
3.5.1.2.	Elsholz Alemaniaren kontra.....	22
3.5.1.3.	Bordeianu Moldaviaren kontra eta Piazza Italiaren Kontra.....	23
3.5.1.4.	Saleck Bardi Espainiaren kontra.....	25
3.5.2.	Espainiako auzitegiek emandako jurisprudentzia ildoak.....	25
4.	ONDORIOAK.....	32

5.	BIBLIOGRAFIA.....	35
5.1.	Liburuak eta artikuluak.....	35
5.2.	Araudia.....	37
5.3.	Jurisprudentzia.....	37

LABURDURAK

AEBPPE	Ameriketako Estatu Batuetako psikologo profesionalen Erakundea
AG.....	Auzitegi Gorena
AGE.....	Auzitegi Goreneko Epaia
GAS.....	Guraso Alienazio Sindromea
GEEA.....	Giza Eskubideen Europako Auzitegia
GEEAE.....	Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epaia
GEEB.....	Giza Eskubideen Europako Batzordea
GEEH.....	Giza Eskubideen Europako Hitzarmena
HENK.....	Haurren Eskubideen Nazioarteko Konbentzioa
KA.....	Konstituzio Auzitegia
KAE.....	Konstituzio Auzitegiaren Epaia
OME.....	Osasunaren Mundu Erakundea
PA.....	Probintzia Auzitegia
PKL.....	Prozedura Kriminalari buruzko Legea
PZL.....	Prozedura Zibilari buruzko Legea
ZK.....	Zigor Kodea

LABURPENA

Lan honek helburu argia dauka, Guraso Alienazio Sindromea (GAS) zer den aztertzea, horren inguruan profesionalek emandako iritziei erreparatzea eta problematika horren inguruan sortu diren ildo ideologikoak konparatzea. GASa gaur egun epaitegietan etengabe erabili ohi den argudioa da. Haatik, epaitegietan erabiltzen den argudioa bat izanik ere, frogatuta dago GASak ez duela oinarri zientifikorik. Honen inguruan emandako epaiak psikologo perituaren txostenei erreparatuz eman dira, beraz, lanaren hasieran txostenak egiteko betebeharra duen psikologo peritua nor den aztertu dut, beronek jarraitu beharreko printzipioei erreparatuz. Alabaina, aipagarria da lana ikuspegi hirukoitz batetik egin dudala; izan ere, legeari, jurisprudenziari eta doktrina zientifikoari erreparatu diet. Ondoren, esan bezala, GASaren inguruko eztabaida ideologikoen nondik norakoak aztertu ditut. Behin hori aztertuta, GASaren erregulazioa zuzenbide konparatuan zein den aztertu dut eta, azkenik, nazioarteko Auzitegiek zein Espainiako Auzitegiek GASaren inguruan emandako epaiak erreparatu ditut, horietako bakoitzean psikologo perituaren lana zein izan den aztertuz.

1. SARRERA

Zaila da gatazka batean kontrako alderdien arteko neutraltasunari eustea, eta are zailagoa da alderdi horiek euren arteko harreman bat edota afektibitate handiko istorioa duten pertsonak direnean.

Gurasoak euren arteko gatazka batean sartzen direnean (dibortzio edo banaketa batean, esaterako) eta seme-alabak euren arteko oreka-posizioari eusten saiatzen direnean, umeak behatari aktiboak bihurtzen dira, euren inguruan gertatzen ari den guztiari erreparatuz. Helduen desadostasunak definitzen dituzten emozioak hautematen aditu bihurtzen dira¹, eta guraso bien arteko tira birak analizatzen dituzte.

Dakigunez, gurasoen harremanaren haustura suertatzen bada, horrek ez du gatazka baten amaiera suposatzen, baizik eta gatazka berri hori iraunarazteko eszenatoki berri bat sortzen da. Seeme-alabak umeak badira, aliantzen jokora ohituta daude eta oso erraza da euren subkontzientearen erreakzio psikologikoa guraso bietako baten maitasuna ziurtatzea izatea.

Bestalde, gurasoek seme-alaben aldeko baldintzarik gabeko babesa lortu nahi dute, hori gatazka nagusiaren xede bihur daitekeelarik inkontzienteki umeak kaltetuz. Haurrek presioak jasotzen dituzte posizio batera edo bestera hurbiltzeko, eta horrek ondorio psikologikoak eragiten ditu adingabeengan². Momentu horretan sortzen da umearen gurasoekiko leialtasun gatazka, eta horrekin batera, R. Gardnerrek 1985. urtean planteaturiko Gurasoen Alienazio Sindromea.

Lan honekin, Gurasoen Alienazio Sindromearen gaia ezbaian jarri nahiko nuke, joko-zelai. Printzipioz, GASa, haur eta nerabeengan sortzen den nahasmendua da, batez ere gurasoen arteko banaketa adiskidetsua ez den kasuetan. Oso kritikatu izan den kontzeptua da eta orokorrean auzitegien esparruan gertatzen da. Oso maiz ematen dira epaiak GASean oinarrituta, eta ez lehentasunezkoa den beste ezein interesetan oinarrituta; hala nola, Haurren Eskubideen Nazioarteko Konbentzioak eta gure legeriak ezartzen duen haurraren interes gorenaren oinarritzko printzipioan oinarrituta³.

¹ BOLAÑOS CARTUJO, Juan Ignacio. "El Síndrome de Alienación Parental. Descripción y abordajes psico-legales", *Psicopatología Clínica, Legal y Forense*, vol 2, 3 zk, 2002, 25-45 or.

² RELLOSO CAMPO, Lourdes. *¡Escapa del mal trato!: Identifica y protégete de las personas tóxicas que te rodean*, 2019, 12 or.

³ TORREALBA, Alfredo Emilio. *El Síndrome de Alienación Parental en la legislación de familia*. Universidad de Chile, Facultad de Derecho, Chile, 2011, 5. or.

Esan bezala, GASa sortu ostean, geroz eta maiztasun handiagoz erabili izan da Espainiako Estatuko epaitegi zein auzitegietan, berau diagnostikatzeko psikologoek lana ezinbestekoa izanik. Goazen, bada, GASaren nondik norako guztiak aztertzerako, psikologo forentsearen eginbeharrarekin batera.

2. PSIKOLOGO FORENTSEAREN FIGURAREN NONDIK NORAKOAK

2.1. Psikologo forentsearen kontzeptua

Psikologo peritua edo psikologo forentsea peritu-txosten psikologikoak egiten dituen profesionala da, psikologiaren arloan duen ezagutza zientifiko eta teknikoa baliatuz⁴. Txosten horretan bere iritzi profesionala ematen du; epaile, fiskal eta abokatuak aholkatuz, epaileak bidezkoa den epai bat emateko xedearekin.

Funtsean, honako honako bide hauen bitartez ahalbidetzen da psikologoak burututako txostena praktikan jartzea: a) Peritu-froga gisa, txostenaren emaitzak idatzietan azalduz eta, b) Ahoz, psikologoak epaiketara joateko zitazioa jaso ondoren⁵.

Aipatutako guzti hau argi islatu zuen Bernard Cordier psikiatra frantsesak 1987. urtean: *“Les actions menées par le psychologue-expert ont une finalité experte, jamais thérapeutique, et peuvent être demandées par un particulier, une organisation ou une autorité judiciaire.”*⁶ Euskaraz, zera esan nahi du esaldi honek, psikologo-perituak egiten dituen jarduketak peritu-helburu bat dutela, inoiz ez, aldiz, helburu terapeutiko bat. Ondoren jarduketa hori nork eska dezakeen adierazten du, agente horiek partikularrak, erakundeak edo agintaritza judizialak izan daitezkeelarik.

Azkenik, aipagarria da ere psikologo forentseek Auzitegi eta Epaitegietan egiten duten lana Psikologoaren kode deontologikoaren arabera burutuko dutela. Kode deontologiko honek, besteak beste, honako printzipio hauek finkatzen ditu psikologoaren lana behar bezala egin dadin⁷:

- Pertsonen askatasun eta osotasun fisiko edo psikikoaren aurkako praktiketan parte hartzeko debekua
- Giza eskubideen urraketari buruzko informazioa emateko betebeharra
- Erlijio-sinesmenekiko errespetua erakustea
- Norbanakoak bereizkeriaz tratatzeko debekua
- Txostenak idazterakoan zuhurtziaz jokatzea

⁴ FERNÁNDEZ, José Ramón. *Psicología Judicial. ¿Qué es la Psicología Judicial?*. Gabinete de Psicología Conductual y Judicial, 1. or. URL helbidea: (<https://psicogpc.com/terapia/psicologia-judicial/>). [Azken kontsulta: 2021-03-03].

⁵ TIFFON, Bernat-Nöel. *Psicología y Psicopatología Clínica, Legal, Jurídica, Criminal y Forense*. Bosch Editor, Barcelona, 2008, 53. or.

⁶ CORDIER, Bernard. *Aspects Législatifs et Administratifs de la Psychiatrie*. Maloine éditeur, 1987, 241. or.

⁷ Código Deontológico del Consejo General de Colegios Oficiales de Psicólogos. 2010, Espainia, 5-32. art.

- Dagozkion kasuak hartzea eta gainerakoak dagozkionari bideratzeko betebeharra
- Bere lana inpartzialtasunez burutzea

2.2. Psikologo forentsearen parte hartzea prozesu ezberdinetan

Aipatu dugunez, psikologo forentseak berebiziko garrantzia dute zenbait prozesutan; izan ere, euren txostenaren arabera izango da gehienetan epaileak emango duen ebazpena. Hortaz, ezinbesteko dugu aztertzea zein prozesutan hartzen duen parte.

Edozein prozedura dela medio, adingaberen bat egonez gero, psikologo forentseak parte hartuko du. Esaterako, lekukotasunaren sinesgarritasuna aztertzeko, adingabearen egoera psikologikoa aztertzeko, tratu txarrak salatu badira horien inguruko ebaluazioa egiteko...

Zigor zuzenbidearen arloan ere maiztasunez erabiltzen da figura hau; hala nola, egozgarritasuna baloratzeko, nahasmendu psikopatologikorik dagoen frogatzeko, toxikomania identifikatzeko, tratu txarrak egon diren frogatzeko, genero-indarkeria kasuetan eta abar.

Bestalde, aipatu beharra dago gehiagotzen ari dela psikologo judizialaren eginbeharra lan arloan; izan ere, lan-istripuetan erabili ohi dira, baina azken urte hauetan areagotu dira *mobbing* edo *burn out* direlakoan salaketak eta berauek frogatzeko ezinbestekoa izan da psikoloen peritu-froga. Honez gain, langileen lanerako ezintasuna frogatzeko ere erabili izan da noizbait psikologo judizialaren figura.

Zuzenbide zibilean ere eskuhartzen dute psikologiek; esaterako, ezgaitasunak frogatzeko, barneratze psikiatrikoen inguruko txostenak egiteko, testamentua egiteko gaitasuna frogatzeko... Gainera, familia zuzenbidean ere oso papel garrantzitsua dute adingabeen zaintza erabakitzeke, bisita-erregimena zehazteko, adingabeen adopzioa baimentzeko, talde psikosozialetan lan egiten dute eta abar⁸.

Ikusi dugunez, prozedura desberdin askotan lan egiten dute. Familia arloan, oraintsu gehiagotzen ari den ustezko Gusaroen Alienazio Sindromea (GASa) dagoen kasuetan ere txosten bat egiten dute, berori ezinbestekoa izango delarik gaiaren funtsaren inguruko epai bat emateko. Horrenbestez, kasu zehatz hori da lanean zehar aztertuko duguna,

⁸ FERNÁNDEZ, José Ramón. Psicología Judicial. ¿Qué es la Psicología Judicial?. Gabinete de Psicología Conductual y Judicial, 1. or. URL helbidea: (<https://psicogpc.com/terapia/psicologia-judicial/>). [Azken kontsulta: 2021-03-03].

psikologoek txostenak zertan oinarritzen diren aztertuz eta berorrei azken urteetan zehar emandako tratamendu prozesala argituz. Horrekin batera, psikologo zein psikiatra forentseek GAsa ezagutzera eman zenetik izan dituzten ildo ideologikoak aztertuko ditugu (oso gai polemikoa izan delako eta badelako oraindik ere), fenomeno honek adingabeen bizitzetan izan ditzakeen ondorioak behatze aldera, horiek desagerrarazteko.

2.3. Epaileek psikologo forentsearen peritu-txostenaren froga-balioa

Espanian, dakigunez, Agintaritza Judizialak frogaren balorazio askearen printzipioaren edo legezko balorazioaren arabera jarduten du. Psikologo forentseak egindako txostenen kasuan, txostenaren onarpena eta balorazioa epailearen erabakiaren esku geratzen da. Prozedura Zibilarren Legearen (PZL) 283. artikulua⁹ arabera, froga onartzea hiru irizpideren arabera izango da: lehenengoa, frogaren egokitasuna, prozesuaren xedearekin eta eztabaidatutako gertaerekin zerikusia duena; eta bigarrenik, frogaren beharrezkotasuna eta erabilgarritasuna, auzitegiaren azken erabakia egiaztatzeke erabakigarria izango dena.

Bestalde, Legeak ezartzen du ez direla alferrikako frogak onartuko, baldin eta, arrazoizko erregela eta irizpideen arabera, horiek ezin badute lagundu prozeduraren objektu diren egitate eztabaidagarriak argitzen.

Halaber, PZLk dioenez, beharrezkoa denean, epaileak edo prozesuko alderdiek profesionalen irizpena eska dezakete txosten baten bidez, argitu beharreko gaiari buruzko ezagutza teknikoak lortu behar direnean; kasu honetan, GASari dagokionean, talde psikosozialetara edo talde tekniko judizialera jotzen dute.

Hala ere, aipatu beharra dago aditu-frogak direla, eta direnaren arabera izan beharko dela beroiei buruzko balorazioa. Prozedura Zibilarren Legearen 347. artikulua¹⁰ eta Prozedura Kriminalaren Legearen (PKL)¹¹ 478. artikulua¹¹ dioenaren arabera, peritu-txostena burutu aurretik ezinbestekoa da peritu-txostena egiteko erabili behar diren elementu faktikoak zehaztea; gertakarien aurrekariak, hain zuzen ere.

⁹ PZLren 283. artikulua. Espainia, 2000.

¹⁰ PZLren 283. artikulua. Espainia, 2000.

¹¹ PKLren 478. artikulua. Espainia, 1882.

Bestalde, ezinbestekoa da aipatzea Epaitegietako talde psikosozialek aurkezten dituzten txostenak gizarte-langile batek sinatzen dituela, diagnostiko hori, hau da, jatorrizko txostena, psikologo kliniko batek egindako jarduketan ondorio delarik.

Azkenik, txostenak eman ondoren, epaileek arrazoitu beharko dute zergatik onartzen edo arbuiatzen duten psikologo perituek emandako txostena. Ildo horretan, Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 26ko 193/1996 Epaiak honako hau dio: *“...deberá explicar el porqué de la convicción alcanzada respecto de los hechos probados, esto es, en lo ateniante a la determinación de las pruebas en las que el órgano judicial se ha basado para llegar a la existencia de los mismos, así como en lo referente a los fundamentos de derecho, razonando el proceso de subsunción de los hechos probados en las correspondientes normas jurídicas¹².”*

Auzitegi Gorenaren arabera, talde psikosozialen edo psikologoaren txostenek ezin dute epailearen erabaki judiziala ordeztu, horrela adierazi zuen 337/2007ko uztailaren 19ko epaian: *“un dictamen pericial psicológico sobre un testimonio no constituye un documento que evidencia por su propio poder acreditativo directo la veracidad de una declaración testifical, el juicio del psicólogo jamás podrá sustituir al del Juez¹³.”*

¹² KAE 194/1996, 1996ko azaroaren 26a, 3. oinarri juridikoa.

¹³ AGE 337/2007, 2007ko uztailaren 19a, 1. oinarri juridikoa.

3. GURASOEN ALIENAZIO SINDROME (GAS)

3.1. Sorrera, kontzeptua eta ondorioak

Gurasoen Alienazio Sindromea (GAS) Richard A. Gardner mediku eta psikiatra estatu batuarrak definitu zuen lehen aldiz 1985. urtean. Dibortzio edo banaketa baten testuinguruan agertu ohi den aldaketa gisa definitu zuen, non haurrak bere gurasoetako bat mespretxatzen eta gaitzesten duen. Gainera, umeak egiten buen gurasoetik balorazio negatibo hori bidegabea edo gehiegizkoa izan behar du GASa dagoela esateko. GAS kasuetan guraso batek mentalki programatzen du seme-alaba Gardnerren esanetan, beste gurasoa baztertzeko *brainwashing* metodoaren bitartez¹⁴. Gaitzespen hori prozesu konplexua da. Haatik, GASa dagoela esateko ezinbestekoa da ukanbehar bat betezea; izan ere, haurrak, helduaren *brainwashing*etik datozen mezuez gain, ekarpen propioak egin behar dizkio beste gurasoaren errefusari. Aipagarria da ere sor daitekela testuinguru zehatz bat non GASa diagnostikatzea ezinezkoa den; esaterako, tratu txarrak egotea eta GASa egoeta bateraezinak dira. Kasu horretan, umearen gurasoetik errefusa *brainwashinga* ez den beste inguruabar batetik eratoritzen delako.

Esan bezala, ohikoena haurrak behin eta berriz bere gurasoetako batekiko gorrotoa edo arbuioa adieraztea da, hari buruz mespretxuz hitz egitea eta hori egitean errua edo lotsa zantzurik ez agertzea. Arbuioa justifikatzeko denetarik arrazoiak eskainiko ditu, eta sarritan gaitzetsitako gurasoaren inguruko senide edo lagunei ere zabalduko zaie mespretxu hori¹⁵.

Gardnerrek arazo hau planteatu ostean, GASa garatzen laguntzen duten hiru faktore identifikatu zituen 1992an. Lehenengoa, lehen plazaratutako "*brainwashinga*" da, ekintza esplizituen bidez, haurra mentalki beste gurasoaren aurka programatzeko teknika. Eskolako informazioa ez partekatzea ere maiztasun handiz ematen den faktore garrantzitsua da. Azkenik, guraso alienatzaileak guraso alienatuaren jazarpen baten biktima bailiran sentitzen dira, eta jazarpen hori, ustez hura baztertzeko justifikazio gisa erabiltzen da¹⁶.

Bestalde, logikoa denez, Gardnerrek planteatutako teoria honek ondorio anitz eragiten ditu GASa jasan duten adin txikikoengan. Nahiz eta Gardnerrek berak ondorioetako batzuk

¹⁴ GARDNER, Richard. "Recent trends in divorce and custody litigation", *Academy Forum*, 29 zk, 1985, 1 or.: "The term *brainwashing* implies that one parent is systematically and consciously programming the child to denigrate the other parent."

¹⁵ VILALTA SUÁREZ, Ramón J. "Descripción del Síndrome de Alienación Parental en una muestra forense", *Psicothema*, 4 zk, 2011, 636 or.

¹⁶ GARDNER, Richard. *Parental alienation syndrome: A guide for mental health and legal professionals*, Creative Therapeutics, 1992, 13 or.

plazaratu bere lanetan, bere teoria munduratu zenetik psikologo zein psikiatra ugarik adingabeek jasaten dituzten ondorio psikologikoak aztertu dituzte azken urteetan zehar.

Familia elkargunetan, esaterako, baztertutako gurasoaren presentzia fisiko soilaren aurrean, adin txikikoengan antsietate-erreakzioak eta larritasun-krisiak erreparatu ahal izan dira. Horrez gain, beste kasu askotan, guraso alienatzaileak elikadura zein logura-patroietan asaldurak egon direla aldarrikatu du. Honen harira, aditu askok (Sepúlveda, Gil eta Segura besteak beste) defendatu izan dute behatutako sintomatologia hori bat datorrela historian zehar tratu txarrak jasan dituzten adingabeek bizitako ondorio psikologikoekin¹⁷.

Bestalde, Lourdes Relloso psikologo klinikoaren esnetan, jokabide-nahasmenduak izaten dituztela ere aipatu beharra dago. Esaterako, ohikoak izaten dira jokabide oldarkorrak: bisitak egitea ezinezko bihurtzen da, irainak esaten dituzte edota mehatxu fisikoak suertatu daitezke... Helduen hizkuntza eta esamoldeak erabiltzen dituzte: sarritan termino judizialak hitzez adierazten dituzten txikiak aurki daitezke, bai eta prozesu horiei buruzko ezagutza argia dutenak ere¹⁸. Haatik, emozionalki dependienteak diren umeak bihurtzen dira; izan ere, beldurra sentitzen dute bizi diren gurasoak abandonatuko ote dituen, beren maitasuna baldintzatuta dagoela sentitzen baitute. Bata gorrotatu behar dute beste gurasoaren onarpena izateko.

3.2. Gurasoen Alienazio Sindromea joko-zelai: sindromea ala ez? Adituen ildo ideologikoak

Gurasoen Alienazio Sindromeak eztabaida sortu izan du hasieratik, terminoa R. Gardnerrek 1985ean "sindrome" gisa sortu zuenean, sindromearen definizioa nahasmendu, gaixotasun edo koadro kliniko espezifiko bat osatzen duten zeinu eta sintomen multzoa dela ulertuta¹⁹. Halaber, orain arte azaldu dugun moduan, R. Gardnerrek sintoma batzuk proposatu zituen, sindrome mediko eta haurren nahasmendu gisa onartu zedin. Horren ondorioz, berehala agertu ziren beste psikiatra, psikologo zein pediatra batzuen kritikak eta kontrako iritziak. Ezberdintasun ideologiko horiek denboran zehar mantendu dira, eta polemikak gaur egunera arte iraun du.

¹⁷ SEGURA, Cristina; GIL, María Jesús eta SEPÚLVEDA, María Ángeles. "El síndrome de alienación parental: una forma de maltrato infantil", *Cuadernos de Medicina Forense*, 43-44 zk, 2006, 118. or.

¹⁸RELLOSO CAMPO, Lourdes. *¡Escapa del mal trato!: Identifica y protégete de las personas tóxicas que te rodean*, 2019, 77 or.

¹⁹ CLARAMUNT, María Cecilia. *Compendio de definiciones: Síndromes, Series de Cuadernos de Apoyo*. Asociación Armonie, 2007, 4. or. Hemendik eskuratua: <https://accesoalajusticia.poder-judicial.go.cr/index.php/interes-violencia-sexual?download=873:compendio-de-definiciones-s-ndromes&start=20> [Azken kontsulta: 2021/05/17]

GASa ezbaian jarri duen argudioetako bat datu enpirikoen falta izan da²⁰; izan ere, osasun mentaleko ezein sistemak edo eskuliburuk ez dio errekonozimendu zientifikorik aitortzen²¹. Hain zuzen ere, Osasunaren Mundu Erakundeak ez du GASa CIE-10 delakoan aintzat hartu²², ez eta Ameriketako Estatu Batuetako psikiatra profesionalen erakunde nagusiak edo Ameriketako Estatu Batuetako psikologo profesionalen erakunde²³ (AEBPPE) nagusiak DSM-IV delakoan²⁴.

Haatik, badira pentsamolde hori aurkaratu duten autoreak ere, honakoa argudiatuz: DSM-IVan badirela espezifikoak ez diren atal batzuk, "harreman-arazoak", esaterako. Horien barnean beste atal bat dago, "guraso eta seme-alaben arteko arazoak", hain zuzen ere. Esan bezala, aditu batzuen ustez GASa badago azpikaterogia horretan sartzerik, ondorioz, sindrome legez ulertu liteke²⁵.

Aipatutako honen ondorioz, profesional batzuen ustetan GASa R. Gardnerrek bere sorreran deskribatu zuen moduan errekonozitu beharko litzateke. Beste batzuen aburuz, ordea, ez da klinikoki ez eta juridikoki aitortu behar; izan ere, uste dute nahasmen psikologiko bat asmatzea dela; adingabeen zaintza gurasoetako zeinek izango duen zehazterako orduan epaitegietan argudio legez erabiliko den oinarri zientifikorik gabeko sindromea. Honen harira, beste autore batzuek salatu dute dibortziazatutako gurasoen zenbait elkartek, zenbait abokatuk eta sistema judizialarekin zerikusia duten beste profesional batzuek GASa erabili izan dutela euren seme-alaben arbuioa guraso alienatzaileak egiten duen laidoztatze-kanpainan datzala argudiatzeko, aitzakia legez²⁶.

²⁰ VACCARO, Sonia eta BAREA, Consuelo. *El pretendido Síndrome de Alienación Parental: un instrumento que perpetúa el maltrato y la violencia*. Desclee De Brouwner, Bilbao, 2019, 67 or.

²¹ AGUILAR, Lola., ESCUDERO, Antonio. eta DE LA CRUZ, Julia. "La lógica del síndrome de alienación parental de Gardner (SAP): Terapia de la amenaza", *Revista de la asociación española de neuropsiquiatría*, 28 zk, 2008, 283-305 or.

²² Organización Mundial de la Salud (OMS): CIE-10. *Décima Revisión de la Clasificación Internacional de las Enfermedades. Descripciones Clínicas y pautas para el diagnóstico*. Organización Mundial de la Salud. Ginebra, 1992.

²³ CLARAMUNT, María Cecilia. *Compendio de definiciones: Síndromes, Series de Cuadernos de Apoyo*. Asociación Armonie, 2007, 6. or. Hemendik eskuratua: <https://accesoalajusticia.poder-judicial.go.cr/index.php/interes-violencia-sexual?download=873:compendio-de-definiciones-s-ndromes&start=20> [Azken kontsulta: 2021/05/17]

²⁴ American Psychiatric Association (APA): *Diagnostic and Statistical Manual of Mental Disorders (DSM-IV)*. Washington, Amerikako Estatu Batuak, 1994.

²⁵ ARCH MARÍN, Mila eta JARNE ESPARCIA, Adolfo. "DSM, salud mental y síndrome de alienación parental", *Papeles del psicólogo*, 30 (1) zk, 2009, 86-91 or.

²⁶ BOLANOS CARTUJO, Juan Ignacio. *Estudio descriptivo del Síndrome de Alienación Parental en procesos de separación y divorcio. Diseño y aplicación de un programa piloto de mediación familiar*. Departamento de Psicología de la Educación, Facultad de Psicología, Universidad Autónoma de Barcelona (UAB), 2000, 80-83 or.

Bestalde, elkarte feminista batzuk zein tratu txarrak jasan dituzten emakumeen zenbait elkartek GASa argudio tekniko legez onartu ez dezaten eskatu dute hainbatetan, GASaren erabilera okerra egiten dela esanez. Erabilera horrek egoera arriskutsu bat sor dezakela argudiatu dute, hala nola genero-indarkeria, tratu txar edo sexu-abusu egoerak estaltzea; GASa argudiatzeak jada tratu txarrak jaso dituen ama edo ume baten akusazioa kaltetu dezaleelako²⁷.

Logikoki, psikiatra zein psikologo profesionalek adingabeak kontu handiz ebaluatu behar dituzte, seme-alaben arbuioaren arrazoia zein den zehazte aldera²⁸. Zehaztasun eta profesionaltasun handiz egin beharreko lana da hau, akats bakar batek ere sekulako ondorioak edukiko lituzkelako seme-alabengan²⁹. Honen harira, R. Gardnerrek berak esan zuen indarkeria medio denean edo gurasoetako bat arbuizatzeko arrazoi justifikaturen bat dagoenean ez litzatekela GASik egongo³⁰. Horren alde agertu dira ere GASEan adituak diren Pereda eta Arch psikologoak honakoa esanez: “...descartando por completo la existencia de cualquier forma de maltrato o negligencia en los cuidados del niño, asegurándose de que las críticas no se refieren a conductas o actitudes reprochables del familiar rechazado³¹.”

Gaur egun, aurreko paragrafoan azaldutakoaren harira, indar handia hartu du Vaccarok proposatutako ildo ideologikoak, zera esanez: guraso alienazio sindromeak tratu txarrak medio diren kasuetan defentsarako *ad hoc* argudio bat emateaz gain, biktimaren gaineko susmoa ere ezartzen duela³²; haurrengan, hain zuzen ere. Bestalde, zorrotasun handiz aldarrikatu du bereziki arriskutsua dela GASaren existentzia onartzea intzestu kasuetan; izan ere, haurren hitza debaluatzen da eta haurren testigantzari buruzko aurretiazko susmoa sor daiteke. Haatik, haurtzaroan emandako sexu-abusuen kasuetako ia guztietan, haurren hitza da ikerketa judiziala hasteko froga bakarra, eta GASa argudiatuz gero umearen testigantza behertan behera geratu daiteke. Honez gain, ustezko sindrome hay psikologoen,

²⁷ VACCARO, Sonia eta BAREA, Consuelo. *El pretendido Síndrome de Alienación Parental: un instrumento que perpetúa el maltrato y la violencia*. Desclée De Brouwner, Bilbao, 2019, 58-59 or.

²⁸ ARCH MARÍN, Mila y PEREDA BELTRÁN, Noemí. Abuso sexual infantil y Síndrome de Alienación parental: criterios diferenciales. *Cuadernos de medicina forense*, 58 zk, 2009, 279-287 or.

²⁹ BOLAÑOS CARTUJO, Juan Ignacio. *Estudio descriptivo del Síndrome de Alienación Parental en procesos de separación y divorcio. Diseño y aplicación de un programa piloto de mediación familiar*. Departamento de Psicología de la Educación, Facultad de Psicología, Universidad Autónoma de Barcelona (UAB), 2000, 85. or.

³⁰ GARDNER, Richard. “Recent trends in divorce and custody litigation”, *Academy Forum*, 29 zk, 1985, 1 or.

³¹ ARCH MARÍN, Mila eta PEREDA BELTRÁN, Noemí. Abuso sexual infantil y síndrome de alienación parental: criterios diferenciales. *Cuadernos de medicina forense*, 58 zk, 2009, 279-287 or.

³² VACCARO, Sonia eta BAREA, Consuelo. *El pretendido Síndrome de Alienación Parental: un instrumento que perpetúa el maltrato y la violencia*. Desclée De Brouwner, Bilbao, 2019, 49. or.

abokatuen, perituen eta justizia-funtzionarioen artean zabaldu dela salatu du, umeak babesgabezia egoera batean utziz³³.

3.3. Gurasoen Alienazio Sindromeari buruzko araudia Espainiako Estatuan: delitua da?

GASa hurrenganako tratu-txar legez hartzen dute psikologo zein psikiatra gehienek. Irakurritako bibliografiaren arabera (Gardner, 1992; Bolaños, 2000; Segura, Gil, Sepúlveda, 2006; Paz, 2007; Arch, Pereda, 2009; Vilalta, 2011; Vaccaro, 2012) ia-ia aho batez. Ikusi dugunez, GASaren sortzaileak berak ere berau aldarrikatu du hainbatetan bere lanetan zehar. Haatik, Epaitegi zein Auzitegietan ez dute juridikoki tratu txar psikologiko legez hartzen, Zigor Kodeak ez baitu aurreikusten honekin bat etor litekeen tipo zehatzik. Horren harira, Segura, Gil, eta Sepúlvedaren esanetan: *“Toda herida que no se vea, es decir, que sea emocional y no física, siempre lleva a una discordia”³⁴.* Honekin zera esan nahi dute, tratu txarrak fisikoak direnean, mediku baten lesio-partea besterik ez dela behar berauek existitu direla frogatzeko, Zigor Kodeak argi adierazten baititu III. Tituluan lesioen nondik norakoak. Tratu-txar horiek, ostera, psikologikoak badira, eragindako kaltea ere psikologikoa izanik, zailagoa da hori frogatzea eta epaitegietan frogabidea ontzat hartzea. Bestalde, tipo zehatz bat ez existitzeak ezinezko egiten du GASa tratu txarra bailitzan epaitzea.

Esan bezala, zaila da GASaren biktima diren umeak tratu txar psikologikoak pairatu dituztela frogatzea, eta bestalde, ezinezkoa da gurasoetako bati Zigor Kodeko III. Tituluan aurreikusten den delituren bat leporatzea. Dena den, profesionalen esanetan, psikologikoki zein psikiatrikoki erraza da guraso alienatzaile bat identifikatzea, ez dutelako oro har arrazoibide arrazional eta sendorik erakusten azterketa egiten zaien unean. Bestalde, guraso alienatzaileak seme-alabei eragindako kaltea ebaluatu daiteke; izan ere, badaude horretarako proba psikometrikoak. Guzti hau kontuan harturik, nire aburuz frogabidearen soluzioa proba psikologikoei eta psikiatrikoei balio handiagoa ematean legoke, hurrenganako tratu txar horiek informe psikologiko/psikiatriko oinarritu batean islatutakoaren arabera onesteko edo gaitzesteko. Hala ere, esandako hau praktikan jartzeko ezinbestekoa litzateke Zigor Kodeak berau barbeniltzea.

Laburbilduz, aztertutakoaren arabera ez dago GASa delitutzat hartzerik ez dagoelako Zigor Kodean tipifikaturik. Orain arte esandako hau oso argi islatu zuen Nafarroako Probintzia

³³ VACCARO, Sonia eta BAREA, Consuelo. *El pretendido Síndrome de Alienación Parental: un instrumento que perpetúa el maltrato y la violencia*. Desclee De Brouwner, Bilbao, 2019, 48-50 or.

³⁴ SEGURA, Cristina; GIL, María Jesús eta SEPÚLVEDA, María Ángeles. “El síndrome de alienación parental: una forma de maltrato infantil”, *Cuadernos de Medicina Forense*, 43-44 zk, 2006, 127. or.

Auzitegiak (PA) 2016ko ekainaren 23ko 188/2016 autoan, non gurasoetako batek bestea salatzen duen Zigor Kodeak 173.2. artikuluan aurreikusten duen osotasun moralaren aurkako ustezko delitu bat betetzeagatik euren alabaren aurka³⁵. Nafarroako PAK horren harira honako hau esan zuen: *“Comparto la valoración del denunciante que este comportamiento implica un abuso emocional que puede ser perjudicial para la niña, y sobre todo, para las relaciones de ésta con su padre y familia, en cuanto puede generar rechazo respecto de éstos. No obstante, y no sin serias dudas de derecho, entiendo que quedan fuera del perímetro de la tipicidad.*

No existe un precepto específico que tipifique esta conducta, como sí lo hacen otros ordenamientos comparados. Por el contrario, sí que se constata una tendencia a despenalizar determinadas conductas contra las relaciones familiares reconduciéndolas al ámbito civil; por ejemplo, el incumplimiento régimen de visitas³⁶”.

Honekin, bada, argi ikusi dezakegu zelan Nafarroako Probintzia Auzitegiak GASaren izaera penala gaitzesten duen, baina; hala ere, bide zibiletik prozedurarekin jarraitzeko aukera ematen du. Beraz, lanean zehar Epaitegi zein Auzitegiek GASari bide zibiletik emandako trataeta prozesala aztertzeari ekingo diogu.

Alabaina, ezinbesteko dugu aipatzea Gorte Nagusietako Aldizkari Ofizialak 2021eko apirilaren 28an argitaratutako lege-proiektua: “Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osotasunean babesteko Lege Organikoa”. Lege hau Giza Eskubideen eta Desgaitasunei buruzko Politika Integralen Batzordeak emandako irizpenaren ondorio da.

Lege berri honen 10 bis. artikulua GASaren inguruan mintzo da, eta zehazki hala dio: *“Los poderes públicos tomarán las medidas necesarias para impedir que planteamientos teóricos o criterios sin aval científico que presuman interferencia o manipulación adulta, como el llamado síndrome de alienación parental, puedan ser tomados en consideración³⁷.”* Honez gain, 25.3. a). artikulua ere aipagarria da, non GASari beste arbuio bat egiten zaion, honakoa esanez: *“En ningún caso las actuaciones para promover la parentalidad positiva deben ser utilizadas con otros objetivos en caso de conflicto entre progenitores, separaciones o divorcios, ni para la imposición de la custodia compartida no acordada.*

³⁵ Zigor Kodea (ZK), azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, 173. artikulua. Espainia, 1995.

³⁶ Nafarroako Probintzia Auzitegiaren Autoa: NAPA 188/2016, 2016ko ekainak 23, 1. oinarri juridikoa.

³⁷ Proyecto de Ley Orgánica de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia, 2021eko apirilaren 28a, 10 bis. artikulua. Espainia, 2021.

Tampoco debe ser relacionada con situaciones sin aval científico como el síndrome de alienación parental³⁸.”

Lege Organiko honekin, beraz, aro berri bat ireki da Espainiako Estatuan GASari dagokionean. Hutsune legal bat zegoen tokian, orain arbuio bat dago, epaileek GASa erabiltzea debekatuta izango dutelarik, zientifikoki frogatuta ez dagoen heinean. Arestian esan bezala, ez dago Zigor Kodean tipifikaturik, baina behintzat ezingo da epaietan argudio juridiko legez erabili. Pertsonalki, aurrerapauso handia dela uste dut, gure ordenamenduan segurtasun juridikoa indartuko duena eta umeen interes gorena babestuko dituen.

3.4. Gurasoen Alienazio Sindromea zuzenbide konparatuan

GASa ez da fenomeno berri bat baina; hala ere, azken urteotan hartu du bere protagonismo gehiena panorama sozialean eta gizakion egunerokotasunean. Horren ondorioz, legegileek denbora hartu dute berau aztertzeko. Herrialde askotan azterketa-fasean dago oraindik, beste herrialde batzuetan lege-proiektuak aurkeztu dituzte problematika honi aurre egiteko, beste zenbait herrialdetan erregulazioa proposatu bai baina ezezko botoak izan dira nagusi. Beste hainbestetan erregulazio zehatz eta finkoa dute. GASarekin erlazionaturiko denetariko egoerak daude munduan zehar, beraz, goazen horietako kasu esanguratsuenak aztertzeraz.

3.4.1. Argentinako araudia

Argentinako kasua deigarria da; izan ere, GASa arlo zibilean arautzearen ordean, zuzenean erantzukizun penala arautzen duen lege bat onartu zuten, 24.270 Legea, hain zuzen ere. legearen diktaduratik harreman zuzena eta erregularra oztopatzen duen gurasoaren erantzukizun penala ezarri baita. Hau da, legeriak merezi duen garrantzia eman dio gurasoen alienazioari, eta familiaren legeriaren esparrutik ere atera du, delituen katalogoan sartzeko, ekintzaren larritasunari lotutako zigor batekin.

Lege hau 1993ko azaroaren 25ean onartu eta indarrean sartu zen, gaur egun ere indarrean dirauelarik. Legeak honen harira honako hau dio: *“Será reprimido con prisión de un mes a un año el padre o tercero que, ilegalmente, impidiere u obstruyere el contacto de menores de edad con sus padres no convivientes. Si se tratare de un menor de diez años o de un*

³⁸ Proyecto de Ley Orgánica de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia, 2021eko apirilaren 28a, 25.3. a).artikulua Espainia, 2021.

*discapacitado, la pena será de seis meses a tres años de prisión*³⁹.” Legegileak zuzenean “obstruyere” berba erabili izan du, GASa horren barruan sartuko litzatekelarik.

3.4.2. Brasileko araudia

Brasilen ere GASaren inguruko araudia argia da; izan ere, lege oso bat onartu zuten horretarako, 2010eko abuztuaren 26ko 12.318 Legea, hain zuzen ere. 11 artikuluk osatzen dute lege hau, Brasilek GASarekin izango duen tratamenduaren inguruko nondik norako guztiak ezarriz. Bestek beste, honakoa dio Legeak: “*Art 1. Esta Lei dispõe sobre a alienação parental.*”

*Art 2. Considera-se ato de alienação parental a interferência na formação psicológica da criança ou do adolescente promovida ou induzida por um dos genitores, pelos avós ou pelos que tenham a criança ou adolescente sob a sua autoridade, guarda ou vigilância para que repudie genitor ou que cause prejuízo ao estabelecimento ou à manutenção de vínculos com este*⁴⁰.”

Lehenik, “guraso alienazio” delakoaren deskribapena egiten du artikulua. Zehazki, arestian legearen jatorrizko hizkuntzan aipatu dugun legez, guraso alienazioa haurren edo nerabearen garapen psikologikoan interferentzia-ekintza bat egikaritzea dela dio, gurasoetako batek sustatu edo eragindakoa. Horrez gain, hurrengo artikuluetan legegileak aldarrikatu du ekintza hauek burutzeak haurrak familiarteko bizikidetzara osasuntsua izateko oinarritzko eskubidea urratzen duela. Halaber, haurren edo nerabearen aurkako abusu morala dela barnebiltzen da legean⁴¹, eta guraso-ahalari, tutoretzari edota zaintzari dagozkien berezko betebeharren ez-betetze larria dela.

Azkenik, aipagarria da GASa suertatu delaren salaketa baten aurrean, epaileak txosten psikologiko bat eskatu beharko duela (5. artikulua) haurrak manipulazio hori jasaten duela egiaztatzeko. Beraz, Brasilgo legedia gorabehera, argi geratzen da herrialde honetan psikologo perituen aldeko zuzeneko igorpena egiten dutela, gainerako herrialdeetan ez bezala.

³⁹ Código Penal, Ley 24.270 de 25 de noviembre de 1993, artículo 1. Argentina, 1993.

⁴⁰ Lei Nº 12.318, de 26 de agosto 2010, artigo 1 y 2. Brazil, 2010. Hemendik eskuratua: http://www.planalto.gov.br/ccivil_03/_Ato2007-2010/2010/Lei/L12318.htm [Azken kontsulta: 2021/04/03]

⁴¹ Lei Nº 12.318, de 26 de agosto 2010, artigo 3. Brazil, 2010. Hemendik eskuratua: http://www.planalto.gov.br/ccivil_03/_Ato2007-2010/2010/Lei/L12318.htm [Azken kontsulta: 2021/04/03]

3.4.3. Mexicoko araudia

Mexicoko kasua bereziki esanguratsua da; izan ere, 2011. urtean euren Kode Zibileko 323 septimus artikuluan GASa arautu zuten, honakoa ezarriz: *“Comete violencia familiar el integrante de la familia que transforma la conciencia de un menor con el objeto de impedir, obstaculizar o destruir sus vínculos con uno de sus progenitores. Se denomina alienación parental cuando es realizada por uno de los padres, quien, acreditada dicha conducta, será suspendido en el ejercicio de la patria potestad del menor y, en consecuencia, del régimen de visitas y convivencias que, en su caso, tenga decretado. Asimismo, en caso de que el padre alienador tenga la guarda y custodia del niño, ésta pasará de inmediato al otro progenitor, si se trata de un caso de alienación leve o moderada⁴².”*

Artikulu honen xede nagusia haurren interes gorena eta babesa bermatzea zen. Haatik, psikologo zein psikiatra ugari honen aurka egin zuten, artikulua ezarritako zigorra haurarentzat kaltegarria suertatu litzatekela aldarrikatuz beste trastorno eta gaixotasun psikiatriko ugari bide emanaz.

Aurrekoarekin bat eginez, Oaxacako Giza Eskubideen Defentsa Erakundeak konstituzio-kontrakotasun errekurso bat tarteratu zuen Mexicoko Justizia Gorte Gorenaren aurrean. Erakundeak aldarrikatu zuen artikulu horrek urratu egiten zituela haur eta nerabeezko prozeduretan beren iritzia emateko dituzten eskubideak; eta, bestalde, GASa modu horretan arautzea adingabearen interes gorenarekin bateraezina zela. Justizia Gorte Gorenak 2017. urtean emandako epaiak artikulu hori indarririk gabe utzi zuen⁴³. Beraz, esan dezakegu gaur egun Mexicon GASa ez dagoela araututa.

3.5. Guraso alienazio sindromea jurisprudenzian: begirada bat Estrasburgo zein Espainiako auzitegiei

Aurreko puntuetan ikusi dugun legez, oso gutxi dira GASa arautu duten herrialdeak. Herrialde gehienetan familia araubideak ez du GASa aintzat hartu; izan ere, nahiko fenomeno berria da eta arestian aipatu bezala, ez dauka inolako errekonozimendu zientifikorik. Horrez gain, legedi horren kritika eta arazo ugari sortu ditu. Haatik, nire uste apalean guraso alienazioa existitzen da, ukaezina delako egoera hori pairatzen duten

⁴² Código Civil Federal, de 21 de agosto de 1928, artículo 323. México, 1928. Hemendik eskuratua: <https://mexico.justia.com/federales/codigos/codigo-civil-federal/> [Azken kontsulta: 2021/04/03]

⁴³ MONTOYA LÓPEZ, Adolfo Eduardo eta RIVAS DUARTE, Jaqueline. “La alienación parental y su regulación en México, una omisión en su legislación”, *Revista del Posgrado en Derecho de la UNAM*, 7 zk, 2017, 262 or.

umeak badaudela⁴⁴, nahiz eta bere horretan sindrome bat ez den; baina, esan bezala, trastorno horren existentziaren zantzu asko daude.

Horren harira, nahiz eta esan bezala legedi finko bat existitu ez, Auzitegiek maiztasunez aplikatu izan dute GASa. Aplikazio hori areagotzen joan den heinean, berau diagnostikatzeko zenbait arau zein printzipio ezarri ditu jurisprudentziak, psikologo forentsearen lana ezinbestekoa izanik prozesuan zehar. Goazen, bada, epai horietako garrantzitsuenak aztertzerara.

3.5.1. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia ildoak

Dakigunez, Konstituzioa herrialde batek duen lege gorena da. Espainiako Konstituzioak bereziki 10.2. artikuluan dio Konstituzioak aitortzen dituen oinarrizko eskubideei eta askatasunei dagozkien arauak interpretatzerako orduan, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalari eta gai horietan Espainiak berretsiak dituen nazioarteko tratatu eta hitzarmenei erreparatu beharko zaiela. Horren harira, Konstituzio Auzitegiak (KA) 303/1993ko epaian honakoa adierazi zuen: “la jurisprudencia del Tribunal Europeo de Derechos Humanos [...], resulta de aplicación inmediata en nuestro ordenamiento en virtud de lo dispuesto en el art. 10.2 de la C.E.”. Aipatutakoarekin, beraz, argi geratzen da GEEAk emandako epaiak eragin zuzena dutela Espainiako Estatuan. Horrek garrantzia handiagoa ematen dio GEEAren epaiak aztertzeari, are gehiago jakinda Espainian ez dagoela GASari buruzko legerik eta gai honi buruz eman diren epaiak jarraian aztertuko ditugun epaietan oinarrিতa daudela.

3.5.1.1. Mincheva Bulgariaren kontrako kasua

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak gurasoek euren seme-alabekiko alienazioa eragin dutela ebatzi izan du hainbatetan, horren adibide argia da “Mincheva Bulgariaren kontra”ko kasua. 2010eko irailaren 2an munduratu zen epaia, eta honakoa dio 99. atalean: “*La Cour estime également qu'en n'agissant pas avec diligence les autorités nationales ont, par leur comportement, favorisé un processus d'aliénation parentale au détriment de la requérante, méconnaissant ainsi son droit au respect de sa vie familiale garanti par l'article 8⁴⁵*”. Honek zera esan nahi du, Auzitegiak uste duela Bulgariako autoritateek behar bezalako arduraz jokatu ez zutenez, hauek, beren jokabidearekin, guraso alienazio prozesu bat bultzatu zutela

⁴⁴ GUERRA GONZÁLEZ, Jorge. “La alienación parental: Llamémosla «X», pero parémosla”, *Diario la Ley*, 9828 zk, 2021, 1. or.

⁴⁵ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia: GEEAE, Mincheva vs Bulgaria, 2010eko irailaren 2a, 99. paragrafoa.

familia-bizitza errespetatzeko eskubidea urratuz, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren (GEEH) 8. artikuluan aurreikusita dagoelarik.

Epai honekin GEEAk lehen aldiz erabili zuen guraso alienazioaren kontzeptua, eta horrekin batera, alienazio horrek familia errespeturako giza eskubidea urratzen duela aldarrikatu zuen lehen aldiz, hori gertatzea ahalbidetu zuen Estatuak kondenatuz, kasu honetan, Bulgaria.

Lanean zehar hainbatetan aipatu bezala, guraso alienazio delakoak sekulako ondorio psikikoak eragiten ditu umeengan, baita askotan gurasoetan ere. Haatik, garrantzitsua da aipatzea haur bat bere gurasoekiko ezezaguna bihurtzea giza eskubideen urraketa bat dela, eta GEEHren 8. artikulua urratzen duela. Hau beraz Espainiako Auzitegi Goreneko (AG) Sala Zibilak emandako 512/2009 epaiak baieztatu zuen: *“Pero de estas sentencias se debe extraer la doctrina según la cual constituye una violación del derecho a la vida familiar reconocida en el Convenio, el impedir que los padres se relacionen con sus hijos habidos dentro o fuera del matrimonio⁴⁶”*.

Aztertutako honekin, beraz, argi gertzen da GEEAk guraso alienazioaren kontzeptua finkatu zuela, kontzeptu hori maiz erabili izan duela eta, aurrerantzean aztertuko ditugun sententzietan erabiliko duela. Honek zera esan nahi du, GEEAk guraso alienazioaren existentziaren aldeko joera duela, honek sekulako garrantzia izango duelarik ondoren aztertuko ditugun Espainiako Estatuak emandako sententzietan.

3.5.1.2. Elsholz Alemaniaren kontrako kasua

Bestalde, aipagarria da ere GEEAk epai bat eman zuen 2000ko uztailaren 13an, “Elsholz Alemaniaren kontra”ko kasua, hain zuzen ere. Epai horretan GEEAk Alemania kondenatzen du Hitzarmeneko 14. artikulua, diskriminazio debekua ezartzen duena; 8. artikulua, bizitza pribaturako eta familia-bizitzarako eskubidea ezartzen dituen eta 6. artikulua, bidezko prozesu judicial bat izateko eskubidea ezartzen duena urratzeagatik⁴⁷.

Kasu honetan, demanda jartzailea ezkontzatik kanpo jaiotako ume baten aita da; izan ere, umea eta umearen ama etxebizitzaz aldatu ziren, aitak umearekin kontaktua mantendu nahi

⁴⁶ Auzitegi Gorenaren Epaiak: AGE 512/2009, 2009ko ekainaren 30a, 5. oinarri juridikoa.

⁴⁷ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak: GEEAE, Elsholz vs Alemania, 2000ko uztailaren 13a, 53-81. atalak.

zuelarik baina ezin. Horretarako, aipatutako hau momentu horretan zegozkion bide judizialen bidez eskatu zuen.

Alemaniko Auzitegiek horren harira erabaki zuten bisita erregimen bat ezartzeko auto judiziala emateko, ezinebestekoa zela frogatzea aitaren eta semearen arteko harremana onuragarria zela haurrarentzat eta beraren ongizatearentzat. Epaiketaren ostean eta testigantza guztiak eman ondoren, auzitegiak ebatzi zuen zuen haurrak, bere amaren eraginez, jada ez zuela harremanik izan nahi aitarekin, eta, beraz, eskatzailearekin harremanetan jartzeak leialtasun gatazka bat eragingo ziola, eta hori ez zela onuragarria izango haurrarentzat. Aipagarria da ez zela psikologo peritu bat egon haurraren egoera ebaluatzeko.

Aitak Giza Eskubideen Europako Batzordera (GEEB) jo zuen arestian aipatutako artikuluen urraketa salatuz (GEEHn barnebiltzen diren 6. artikulua, 14. artikulua eta 8. artikulua, hain zuzen ere). Azkenean Batzordeak ebatzi zuen artikulua horiek guztiak urratu zituela Alemaniak. 6. artikuluko urraketa bereziki esanguratsua da; izan ere, Auzitegiak esan zuen jatorrizko Estatuak emandako epaiak ez zituela bidezko epaiketa publiko batek izan beharreko baldintzak betetzen, froga psikologikorik ez zegoelako eta eskualdeko auzitegiek ez zutelako peritu-froga hori txertatzeko epaiketa gehigarri bat egin.

Nire aburuz, psikologo perituaren paperak sekulako garrantzia du epai honetan zehar (modu pasiboan bada ere); izan ere, argi dago umearen egoera ebaluatzeko ezinbestekoa dela psikologo profesional baten parte hartzea. Lanean zehar aipatu bezala, psikologoek badituzte froga psikometrikoak umearen egoera ebaluatzeko, eta horren harira umeak guraso alienazioa pairatu duen edo ez ebazteko. Ondorioz, esanguratsua da GEEAk emandako epai hau aldaketa handia suposatu duela jurisprudenzian, psikologo peritu baten ebaluazio-txostenaren beharrezkotasuna aldarrikatu baitu.

3.5.1.3. Bordeianu Moldaviaren kontrako eta Piazza Italiaren Kontrako kasua

Giza Eskubideen Europako Auzitegia beste bi kasu eranguratsutan mintzatu da guraso alienazioaren inguruan, Bordeianu Moldaviaren kontra eta Piazza Italiaren kontrako kasuetan, hain zuzen ere⁴⁸. Lehen kasuan Auzitegiak dio jatorrizko herrialdeak emandako

⁴⁸ Condición Jurídica y Derechos del Niño en relación a la vida familiar y privada en la jurisprudencia internacional, Secretaría General de Capacitación y Jurisprudencia Defensoría General de la Nación, *Boletín de Jurisprudencia Internacional*, 2012.

epai, hau da, Moldaviak emandako epaia zaila zela betetzen (gurasoen arteko bisita erregimena arautzen zuena, hain zuzen ere); izan ere, auzian parte hartu zuen umeak guraso alienazioa pairatu zuen aitaren aldetik amaren kontra, eta umeak ez zuen amarekin kontakturik eduki nahi. Zehazki, horren harira, GEEAk, honela dio: *“el cumplimiento de la sentencia en cuestión resultó ser un trámite muy delicado debido al síndrome de alienación parental que padece la niña⁴⁹”*. Honez gain, epaiaren 45. paragrafoan argi islatzen da gizarte-zerbitzuetako agenteek, haurra amarengana eraman beharreko momentuan, adierazi zutela umea amari entregatzeak ondorio psikologiko larriak eragin ziezazkiokela haurrari. Hau berea modu berean baieztatu zuen beste talde psikosozial batek, epaiaren 60. paragrafoan adierazitakoaren arabera.

Bestalde, epaiaren 87. paragrafoan ikusi dezakegunaren arabera, psikologo zein psikiatra perituek parte hartu zuten prozeduran zehar. Euren aburuz, jatorrizko Estatuak emandako epaiaren exekuzioa, familiarreko neurrien ingurukoa alegia, atzeratu behar da, horren ordezturri zehatzagoak proposatuz adingabearen egoera psikologikoari kalte handiagorik ez eragiteko. Psikologo perituek, besteak beste, aurretiazko terapia edo terapia psikologiko/psikiatrikoaren alde agertu ziren. Profesionalen esanetan, neskatua izututa zegoen, estresatuta, eta fobia hartu zion amari, GASa delakoa suertatu dela argudiatuz. Haurrak psikologo baten esku-hartzea behar duela aldarrikatu zuten, eta terapia medikoa haurrekin aditua den psikiatra baterik⁵⁰. Auzitegiak, bere aldetik, guzti hau ontzat eman zuen, peritu-txostenari balio handia emanaz eta horren araberrako epai bat emanaz.

Bestalde, Piazzi Italiaren kontrako epaia bereiz dezakegu. Kasu honetan, beste kasu bat dugu non bisita erregimena betetzen ez den; izan ere, haurrak ez du nahi aitarekin egon nahi. Epai honetan ezinbestekoa da 59. paragrafoan agertzen denari erreparatzea, hor baitago gure lanari dagokion gaiaren gakoa. Paragrafo horretan GEEAk dio jatorrizko Estatuak ezarritako bisita-eskubidea betearaztea ahalbidetzen duten neurriak hartu zituela, adingabearen egoera psikologikoa lehenestearen ordeztur. Hala, Estrasburgoko Auzitegiak, gizarte-zerbitzuei adingabearen ibilbide terapeutikoa jarraitzeko agindu zien. Hauek, euren aldetik, umea aitaren aurrean mehatxatuta sentitzen zela eta ez zuela ikusi nahi adierazi zuten. Bestalde, Auzitegiak esplizituki dio 2003ko abenduaren 1eko ebazpenean aipatutako psikologoaren txostenean adierazitako iritzia ezinbestean aintzat hartu duela epaimahaiak⁵¹.

⁴⁹ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia: GEEAE, Bordeianu vs Moldavia, 2011ko urtarrilaren 11a, 60. paragrafoa.

⁵⁰ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia: GEEAE, Bordeianu vs Moldavia, 2011ko urtarrilaren 11a, 87. paragrafoa.

⁵¹ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia: GEEAE, Piazzi vs Italia, 2010ko azaroaren 2a, 59. paragrafoa.

Txosten horrek zera dio, ama aitaren eta adingabearen arteko eztabaidak sortzen saiatu dela, eta horrek adingabeari guraso alienazio sindromea sortu diola, ondorio psikologiko larriak sortu zaizkiolarik. Beraz, argi ikus dezakegu, kasu honetan behintzat, Auzitegiak psikologo perituak egindako txostenari froga balio handia eman diola, emandako epaia horren arabera izan delarik.

3.5.1.4. Saleck Bardi Espainiaren kontrako kasua

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Espainia kondenatu zuen 2011ko maiatzaren 24ko epaian⁵², Saleck Bardi Espainiaren kontrako kasuan, alegia. Epai honetan, GEEAk ez du zuzenean GAS kontzeptua aipatzen, baina honako hau dio 57. paragrafoan: *“En los asuntos relativos a la vida familiar, la ruptura del contacto con un niño muy pequeño puede conducir a una alteración creciente de la relación con sus padres”*. Bestalde, Auzitegiaren esanetan, *“Las autoridades españolas permitieron hacer a esta niña ajena a su madre, vulnerando su derecho humano al respeto de la vida familiar”*⁵³.

Honekin, bada, GEEAk argi uzten du lanean zehar aipatutako jokabide alienatzaile honek (sindromea den ala ez kontuan hartu barik) adingabeengan sekulako ondorio psikologikoak sortzen dituela. Kasu honetan ere epaia psikologo perituek egindako txostenen arabera eman da, epaimahaiak garrantzia handia eman dielarik.

3.5.2. Espainiako auzitegiek emandako jurisprudentzia ildoak

Azken urteotan, Espainiako justiziaren esparruan Gurasoen Alienazioaren sindromea sartu da, eta termino hau geroz eta maiztasun handiagoz entzuten dugu gure egunerokotasunean. Honek ondorio larri eta esanguratsuak ekarri ditu zenbait haur eta neraberentzat; izan ere, prozesu zibiletan zein zigor-arloko prozesuetan ageri da. Esanguratsua da, baita ere, GAS kontzeptua justizia arloan erabiltzen hasi zela judizialki ezarritako zaintza eta jagoletza partekatua eskatzeko aukera arautzen zuen legea indarrean sartu zenean (uztailaren 8ko 15/2005 Legea, hain zuzen ere), eta 2004ko abenduaren 28ko

⁵² MONFORTE, José Domingo. “Relaciones postconvivenciales. Hijos menores, manipulación psicológica y alienación parental”, *Diario la Ley*, 9820 zk, 2021, 2. or.

⁵³ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia: GEEAE, Saleck Bardi vs Espainia, 2011ko maiatzaren 24a, 57. paragrafoa.

Genero Indarkeriaren aurkako Lege Integrala onartu zenean⁵⁴. GAS legez ezagutzen dugun teoria hori indarra hartzen hasi zen eta Espainiako lurralde osora hedatu zen.

Espainiako epaitegietan, prozedura askotan, abokatuek GAS oinarrizko frogatzat aurkezten dute (alderdietako baten alegazio gisa edo psikologoaren txostenen bidez). Euren xedea seme-alaben zaintza eta jagoletzari buruzko eztabaida irekitzea da, jatorriz ezarritako neurriak aldatzeko edo zaintza partekatua ekiditeko. Gainera, aipagarria da ere Espainiako Estatuan emandako epaietan ez dagela adostasunik GAS onartzeari edo ez onartzeari buruz.

Bestalde, zenbait erakundek argi eta garbi adierazi dute GASa judizialki onartzearen aurka daudela; horren adibide argia da Soledad Cazorla, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren aurkako Sala Delegatuko fiskala. Bere hitzetan: *“Es a mi juicio poco afortunado plantear una retirada, partiendo de una enfermedad o en un síndrome poco consolidado y no averado por organismos internacionales”*⁵⁵.

GASa dagoen ala ez egiaztatze aldera, abokatuek edo epaileek talde psikosozialen peritu-txosten bat edo alderdiek profesional bati eskatutako txosten pribatu bat eskatzen dute. Espainian, dakigunez, Agintaritza Judizialak frogaren balorazio askearen printzipioaren arabera jarduten du. Frogaren onarpena eta balorazioa epailearen erabakiaren esku geratzen da.

2002. urteaz geroztik jada badaude GASaren teoria onartzen duten Probintzia Auzitegien epaiak. Alabaina, komunikabideetan lehenengo aldiz oihartzun handia hartu zuen Manresako Lehen Auzialdiko Epaitegiak 2007ko ekainaren 4ko epaia eman zuenean, eta harrez geroztik, esparru judizialean areagotu dira honelako epaiak. Aipatutako epai honek, zera dio oinarri juridikoetan: *“...queda probado que la niña padece cuando menos fobia severa a su padre, sino un síndrome de alienación parental”*⁵⁶. Kasu honetan ere, epai honen erabakia psikologo perituen txostenen eta talde psikosozialen txostenen arabera izan da, froga hauei balio osoa emanaz. Psikologoaren arabera, amak GASa eragin zion bere alabari eta horren ondorioz, alaba aita gorrotatzen hasi zen, berarekiko fobia garatu arte.

⁵⁴ ESCUDERO, Antonio; GONZÁLEZ, Dolores; MÉZNDEZ, Rosa; NAREDO, Covadonga; PLEGUEZUELOS, Eva eta VACCARO, Sonia. *Informe del Grupo de Trabajo de Investigación sobre el llamado Síndrome de Alienación Parental*. Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad, Madrid, 2010, 8. or.

⁵⁵ Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia. Guía de Criterios de Actuación Judicial Frente a la Violencia de Género, 2013.

⁵⁶ Manresako Lehen Auzialdiko Epaitegiaren epaia, LAEE 9/2007 epaia, 2007ko ekainaren 4a, 4. oinarri juridikoa.

Epaileak, azkenean, adingabearen egoera psikologikoa kontuan hartu gabe, zaintza aitari ematen dio, eta amari kendu. Ondoren, umeei lan egiten adituak diren psikologo zein psikiatrak izendatzen ditu alabak jasatzen duen ustezko sindromea baretu dadin.

Arestian aipaturiko 2007ko ekainaren 4ko epaian aitortzen da GASa ez dela sindrome zientifiko bat; izan ere, hori frogatuta dago. Haatik, adingabearengan guraso alienazio sindromea suertatu daitekeela adierazten du epaileak, eta berori ekiditeko seme-alaben zaintza eta jagoletza aitari esleitzen dizkio, amak bisita-erregimena bete dadin erraztasunak jarri beharrean zailtasunak jarri dituela argudiatuz.

Prozesua izapidetu bitartean, sei teknikariren txosten zein adierazpen aurkeztu dituzte alderdiek frogatuta gisa. Profesional guztiak bat datoz adingabeak bere aitarekiko sentitzen duen fobiarekin, gorrotoarekin eta beldurrarekin, baina beldur horren jatorriaren inguruko iritzi desberdinak dituzte. Perituetako hiruk defendatzen dute alabaren beldur hori aitak amari tratatu txarrak jasanarazten zizkiolako direla eta, ondorioz, neskatoa aitarengatik mehatxatuta sentitzen delako. Ondorioz, profesional horien ustetan, beldur hori neskatoak aitarekin izandako bizipen traumatikoaren eta esperientzia negatiboaren ondorio logikoan oinarritzen da. Beste alde batetik, beste hiru profesionalak (horietako bi judizialki izendatuak) alabaren fobia gori GASaren ondorioz sortu dela diote, ama (baita bere inguruko senideak) elementu alienatzailea delako, eta horrek eragin negatiboa izan duelako adingabearengan.

Frogaren balorazio askean oinarrituz, honako hau esan zuen epaileak psikologo perituen txostenen harira, bere azken erabakia horretan oinarrituz: *“En relación al origen de la fobia de la menor, esta Juzgadora acoge sin género de duda la posición de los doctores Estela, Carlos Daniel y Donato, por encima de la posición de Doña Julia, Jose Augusto y Carlos Ramón porque estos tres doctores basan sus conclusiones partiendo de datos de una supuesta violencia intrafamiliar, lejanos ya en el tiempo y que nunca han resultado probados ni judicial, ni científicamente, mientras que los tres primeros se amparan en unas observaciones de la conducta de la niña en tiempo presente y en el desarrollo de los acontecimientos durante estos 4 años, sin partir de datos no constatados ni probados como son los maltratos, que evidentemente condicionan, si son tenidos en cuenta, todas las conclusiones ulteriores⁵⁷.”*

Beste alde batetik, Balear Uharteetako Probintzia Auzitegiak 2008ko otsailaren 7an emandako 47/2008 epaia dugu, non guraso alienazio sindromearen existentzia egiaztatzen

⁵⁷ Manresako Lehen Auzialdiko Epaitegiaren epaia, LAEE 9/2007 epaia, 2007ko ekainaren 4a, 4. oinarri juridikoa.

duen. Gauzak horrela, epaimahaiak adingabeen zaintza eta jagoletza aitari esleitzen dikzio. Epaimahaiak epaia emateko, GASean aditua den idazle baten liburu bat aipatzen du etengabe.

Liburu horretan oinarriturik, epaileak zein GAS mota den zehazten du epaian: larria, ez hain larria edo arina. Epamahiak zehazki hala dio: *“Por lo que se refiere a los tipos de Síndrome de alienación parental (SAP), el psicólogo sr. Fidel, en el Libro al que antes nos hemos referido y al que también se refiere la parte apelante en distintos puntos de su recurso de apelación, distingue los siguientes: tipo leve, tipo moderado y tipo severo. Atendiendo a las conductas o situaciones que se contemplan al referirse a cada uno de ellos, en el supuesto de autos no podemos considerar que nos hallamos ante un SAP de tipo leve, sino que ya lo debemos de clasificar en el tipo de moderado a severo⁵⁸.”*

Auzi konetan emandako psikologoaren txostenari dagokionez, honakoa esan zuen epaimahaiak: *“Esta Sala considera que el Juez “a quo” ha valorado de forma correcta los informes periciales emitidos en el procedimiento, así como, también, los demás pruebas practicadas en el mismo y a las que se refiere en los Fundamentos de Derecho siguientes de la sentencia apelada. Y que en base a tal valoración es correcta la conclusión a la que se llega en la referida sentencia⁵⁹.”* Ondorioz, Probintzia Auzitegiak Lehen Auzialdiko Epaitegiak esan zuena berresten du, psikologo perituek egindako txostenetan eta aurretiaz aipatutako liburuan oinarrituz. Hots, beste behin ere, beste epaimahai batek, Probintzia mailako epaimahai batek hain zuzen ere, GASa baliozkotzat jo du.

Orain aipatutako guzti honi kontrajarriz, oso interesgarria da Bizkaiko Probintzia Auzitegiak 2008ko martxoaren 27an emandako 256/2008 epaia. Zigor prozesu batetik datorren apelazio errekurtsio bati dagokio epai hau. Lehen Auzialdiko epaitegiak kondena bat ezarri zion ama bati ume bat manipulatzeko asmotan GASa erabiltzeagatik. Epaia, irmoki, hala dio: *“El SAP no ha sido reconocido por ninguna asociación profesional ni científica, habiendo sido rechazada su inclusión en el DSM-IV por la Asociación Americana de Psiquiatría, y en la CIE-10 de la OMS. Estas y otras instituciones que priman los objetivos clínicos y de investigación, basan la inclusión de una nueva entidad diagnóstica en la existencia de sólidas bases empíricas, no cumpliendo el SAP ninguno de los criterios*

⁵⁸ Balear Uharteeko Probintzia Auzitegiaren epaia, BUPAE 47/2008 epaia, 2008ko otsailaren 7a, 6. oinarri juridikoa.

⁵⁹ Balear Uharteeko Probintzia Auzitegiaren epaia, BUPAE 47/2008 epaia, 2008ko otsailaren 7a, 6. oinarri juridikoa.

*necesarios*⁶⁰". Halaber, hurrengo paragrafoan honako hau gehitzen du: *"Ni compartimos la existencia del denominado Síndrome de Alenación Parental, ni que, en este caso concreto, Dª... manipulara a su hijo para que rechazase relacionarse con su padre."* Beraz, aipaturiko bi adierazpen hauekin argi geratzen da Bizkaiko Probintzia Auzitegiak arestian aztertutako epai guztiei kontrajartzen zaiela, GASaren existentzia gaitzetsiz, oinarri zientifikorik ez duela argudiatuz.

Bestalde, epaian esaten den legez, auziaren parte den 14 urteko umeak dio ez duela aitarekin egon nahi. Lehen auzialdiko epaileak GASa dagoela dio, baina ez da egon psikologo forentsearen baloraziorik; izan ere, ez da peritu txostenik frogabide legez aurkeztu, beraz, kasu honetan, praktikatu ez den frogabide baten aurrean egongo ginateke.

Askotan esan ohi da, aurretiaz aipatutako epaian baita ere, GASa umeen zaintzari buruzko neurriak aldatzeko erabiltzen dela. Honen harira, aipagarria da urte bereko abenduan Sevillako Probintzia Auzitegiak Bizkaiko Probintzia Auzitegiak emandako epaiaren irizpideekin bat egin zuela abenduaren 11ko 607/2008 epaian, zera esanez: *"tal énfasis en el pretendido síndrome padecido por los hijos del matrimonio sólo se explica como argumento para desacreditar el testimonio inculpatario de la denunciante*⁶¹."

Probintzia Auzitegietan eman diren sententziekin jarraituz, GASaren inguruan eman diren adierazpenen berri ematea erabakigarria izan da zaintzaren araubide juridikoan eta beronen inguruko auziak ebazterako orduan. Honen adibide gisa Pontevedrako Probintzia Auzitegiaren otsailaren 20ko 106/2008ko epaia dugu, zera esaten duelarik: *"Los continuos comentarios negativos de la madre hacia el padre ante la hija y manifestaciones de ésta reveladoras de síntomas de Alienación Parental motivan el cambio de la guarda y custodia a favor del padre*⁶²".

Bestalde, aurreko paragrafoan esandakoarekin jarraituz, esanguratsua da ere Gijóneko Probintzia Auzitegiak 2011ko apirilaren 29ko 41/2011 epaian esan zuena: *"La actitud de la madre de obstaculizar el régimen de visitas de los menores con su padre desestabiliza emocionalmente a los mismos según la valoración de los expertos, habiéndose comprobado por este Tribunal que los menores verbalizan claramente un discurso mediatizado por las*

⁶⁰ Bizkaiko Probintzia Auzitegiaren epaia, BPAE 256/2008 epaia, 2008ko martxoaren 27a, 1. oinarri juridikoa.

⁶¹ Sevillako Probintzia Auzitegiaren Epaia: SPAE 607/2008 epaia, 2008 abenduaren 11a, 1. oinarri juridikoa.

⁶² Pontevedrako Probintzia Auzitegiaren Epaia: PPAE 106/2008 epaia, 2008ko otsailaren 2a, 1. oinarri juridikoa.

*actitudes e indicaciones de la madre, por lo que procede acordar el cambio de la guarda y custodia de los menores a favor del padre debido a la actitud obstaculizadora de la madre que incumple las obligaciones impuestas en la sentencia de divorcio*⁶³". Epaia honetan zehar, bereziki, adingabeek jasan duten manipulazio psikologikoa joko-zelai jartzen da, psikologo perituak emandako txosten batean oinarrituz. Haatik, aipatutako azken bi epai hauetan, argi ikus dezakegu zelan psikologo forentseak egindako txostena umeen zaintza aldatzeko argudio nagusi legez erabili daitekeen. Honekin, bada, ondoriozta dezakegu, asko direla GASa argudiatuz umeen zaitza aldatzea lortu dutenak.

Azkenik, aipagarria da Oviedoko Lehen Auzialdiko Epaitegiaren epaia, 2005eko ekainaren 13koa. GASari egiten zaizkion kritiken artean bata adingabeen babesgabezia da. Aipatutako kasu honetan, epaitegiak umeen zaintza aitari eman zion, adingabeek guraso alienazio sindromea pairatzen zutela argudiatuz. Alabaina, aldi berean, aitak emazte ohiarenganako eta haren seme-alabenganako urruntze-agindu bat zuen, auto batean deklaratu zena kautela-neurri gisa, zigor prozesu batean. Kautela-neurri hori indarrean zegoen bitartean seme-alaben zaintza aldatzen zuen epaia eman zuten, umeak babesgabe eta egoera arriskutsu batean utziz, zigor arloari zegokion epai hori eman arte⁶⁴.

Aipatutako zigor-arloko prozeduraren auto horretan egiaztatuta geratu zen, familia-elkargunearen txosten baten arabera, haurrek aitarekiko duten beldurra zutela. Amak aitaren aurkako salaketa bat jarri zuen; izan ere, salatzaileaz gain, adingabeek mehatxuengatik eta bestelako kalteak pairatu zituzten euren aitaren aldetik.

Oviedoko Epaitegiko talde psikosozialak emandako txostenek familia-egoera aztertzen jarraitu zuten. Aipagarria da txosten horiek emateko ez zutela ama elkarrizketatu; baina, ordea, txostenetan esaten da amak "egoeraren interpretazio eldarniotsua izaten jarraitzen duela eta adingabeak amaren manipulazioarekiko biktimak direla". Epaitegiak orain aipatu dugun talde psikosozialak emandako txosten hori erabili zuten epaia emateko.

Honekin guztiarekin, beraz, ondoriozta dezakegu GASaren inguruko kontuak korapilatsuak direla. Denetariko iritziak daude psikologo zein psikiatren artean, baina baita agente judizialen baitan ere. Jurisprudentiak ez du ildo finko bat jarraitzen; izan ere, aztertu dugunez, Auzitegi zein Epaitegi batzuek GASa existitzen dela aldarrikatu dute, horren araberrako epaiak emanez, eta beste batzuek, Bizkaiko Probintzia Auzitegia kasu,

⁶³ Gijóneko Probintzia Auzitegiaren Epaia: GPAE 41/2011 epaia, 2011ko apirilaren 29a, 7. oinarri juridikoa.

⁶⁴ Oviedoko Lehen Auzialdiko Epaia: OLAE 378/2005 epaia, 2005eko ekainaren 13a.

GASarekin existentzia guztiz galarazi dute, termino sexista dela argudiatuz. Aurrekoaren argitan eta nire uste apalean, argi dago guraso alienazio sindromeak ikerketa sakon bat behar duela, epaitegietan aurkezten diren kasuak behar bezala ebazteko, epaileak orientatzeko eta batez ere, umeen interes gorena bermatzeko.

4. ONDORIOAK

Lanean zehar ikusi dugun legez, GASa oso kontzeptu eztabaidatua izan da historian zehar, bere inguruan denetariko ildo ideologikoak sortu direlarik 1985. urtean R. Gardnerrek lehen aldiz plazaratu zuenetik.

Autore askok aipatu izan dute ez dela existitzen guraso alienazio sindromerik⁶⁵; esaterako, Vaccarok. Ildo horretan, aipagarria da gaur egun, gaixotasunen sailkapen ofizial bakar batean ere ez dela sindrometzat edo trastornotzat hartzen: ez Osasunaren Mundu Erakundeak kaleratutako CIE-10ean ez eta Ameriketako Estatu Batuetako psikologo profesionalen erakunde nagusiak kaleratutako DSM-IVean ere.

Alabaina, nahiz eta sidrome bat ez dela frogatuta dagoen, nire ustez, oso desberdina da sindrome bat ez dela aldarrikatzea eta, bestalde, guraso alienaziorik existitzen ez dela esatea. Nire aburuz, GASa modu desegokian erabili izan da epaitegi zein auzitegietan, hori argi islatzen da aztertutako zenbait epaitan. Hala ere, gurasoek seme-alabekiko manipulazioa eragiten dutela errealitate bat da, eta errealitate hori ukatzeak, nahiz eta sindrome bat ez izan, umeak babesgabezia egoera batean utzi ditzake. Guraso alienazio sindrome, seme-alabekiko alienazio, familiarekiko nahitaezko deslotura⁶⁶, familia haustura... deitu diezala bakoitzak nahi duen moduan profesionalek termino bat zehaztu arte; izan ere, terminoarekiko adostasuna ez da kontu honetan garrantzitsuena, kontzeptu horrek egungo gizartean suposatzen duena baizik.

Esan bezala, gurasoak seme-alabak manipulatzeko errealitate bat da⁶⁷, guraso bien arteko gatazkarik egon gabe ere horrelako kasuak ematen baitira. Pentsaezina bailitzan konfiantzaz jaso den botere bat gaizki erabiltzea; kasu honetan, gurasoek seme-alabekin duten boterea (guraso-ahalarena, alegia), seme-alaben onurarako erabili beharrean, botere horretaz abusatu eta beraren onura propiorako erabiltzea. Gurasoek seme-alabengan eragiten duten manipulazioaren harira honakoa esan zuen Milagros del Campo psikologo forentseak: *“En divorcios contenciosos es habitual que los niños estén en medio del conflicto de los progenitores, muchas veces sin ser conscientes del perjuicio que causan [...]”*

⁶⁵ VACCARO, Sonia eta BAREA, Consuelo. *El pretendido Síndrome de Alienación Parental: un instrumento que perpetúa el maltrato y la violencia*. Desclee De Brouwner, Bilbao, 2019, 48-50 or.

⁶⁶ GUERRA GONZÁLEZ, Jorge. “La alienación parental: Llamémosla «X», pero parémosla”, *Diario la Ley*, 9828 zk, 2021, 1. or.

⁶⁷ RELLOSO CAMPO, Lourdes. *¡Escapa del mal trato!: Identifica y protégete de las personas tóxicas que te rodean*, 2019, 27. or.

*que se les instrumentalice de manera perversa, con alegaciones falsas, no es común, aunque a veces ocurre, y tanto por parte de los hombres como de las mujeres*⁶⁸.

Bestalde, aipagarria da pertsonalitatearen eta garapenaren psikologia behatuz gero, depresioa, apatia, drogo-menpekotasuna, oldarkortasuna, errendimendua jaitea, autoestimua baxua, buruaz beste egitea eta abar izan litezkeela gurasoen manipulazioa jasan izan duten adingabeen ondorio logikoetako batzuk⁶⁹.

Haatik, lanean zehar ikusi dugunez, Espainiako Estatuan ez dago GASaren inguruko legediarik (aurtengo apirilean Espainiako Gorteetan GASa erabiltzea debekatu duen lege-proiektua onartu den arte), ez eta jurisprudentzia finkorik ere. Honek segurtasun eza sortzen du arlo juridikoan; izan ere, seme-alabak babesgabezia egoera batean daude, zenbait kasutan egoera hori arriskutsua izan daitekeelarik. Epai batzuetan GASaren existentzia eza aldarrikatu den heinean, beste batzuetan GASa erabili da ama edo aita bati bere seme edo alaba baten zaintza kentzeko. Nire ustez, kontu honetan garrantzitsuena adingabeen ongizatea da, beraiek direlako gatazkaren parte diren subjekturik ahulenak.

Horrekin lotuta, ezinbestekoa da aipatzea guraso bati umearikiko zaintza kentzen zaionean, askotan haurra bisitekin jarraitzera behartuta dagoela, nahiz eta berak aurrez bisitak egiteari uko egiten dion. Bisitak betetzearen beharrezkotasun horrek Haurren Eskubideen Konbentzioaren 9. (umeak gurasoekin egoteko duen eskubideari buruz mintzo dena) eta 12. artikuluen (umeak bere iritzia adierazteko duen eskubideari buruz mintzo dena) urraketa suposatu dezake⁷⁰. Nire aburuz, ume bakoitzaren banakako egoera kontu handiz baloratu beharko litzateke, puntu honetan psikologo forentsearen eginbeharra zinez garrantzitsua izango delarik. Alabaina, profesional batzuek lehentasuna ematen diote baztertutako gurasoak umearekin egoteko duen eskubideari, umearen beraren ongizateari baino.

Argi dago, nire ustez, GASa gaizki erabili izan dela bai Espainian, bai beste herrialde batzuetan, bai eta GEEAn ere, eta berori argudiatuz umeak kaltetu direla, euren egoera psikologikoa kaltetuz eta, beste kasu askotan, umeen zaintza tratu txarrak jasanarazi dizkionari ematen. Haatik, esan bezala, horrek ez du esan nahi guraso alienaziorik existitzen

⁶⁸ SOSA TROYA, María. El falso síndrome creado contra las mujeres que llegó a los juzgados. *El País*. URL <https://elpais.com/sociedad/2021-03-29/el-falso-sindrome-contra-las-mujeres-que-llego-a-los-juzgados.html>) [Azken kontsulta: 2021/05/10]

⁶⁹ RELLOSO CAMPO, Lourdes. *¡Escapa del mal trato!: Identifica y protégete de las personas tóxicas que te rodean*, 2019, 77 or.

⁷⁰ Nazio Batuen Erakundea (NBE): Biltzar Orokorra, Haurren eskubideei buruzko Hitzarmena, 1989ko azaroaren 20a, 9. eta 12. artikulua.

ez denik. Halaber, guraso alienazioa jasan duen ume bat babestea oso zaila da; izan ere, terapia manipulazioa nozitu ondoren jasoko du, eta kalte hori desagerraraztea ez da prozesu laburra. Nire ustetan, guraso alienazioaren arazoa estrukturala da, gure heziketa emozionalean datzana. Beraz, alienazioa saihesteko irtenbiderik bideragarriena txikitatik heziketa emozionalean inbertitzea litzatekeela deritzot.

Arlo juridikoari dagokionean, profesionalek GASari buruzko iritzi kontsolidatu bat eduki arte, edo Estatu mailan ildo ideologiko konkretu eta zientifikoki kontrastatu bat eduki arte, erabili beharko ez litzatekeen kontzeptu bat dela uste dut. Hala ere, kontzeptu hau urteak igaro ahala garatuko den kontzeptu bat dela uste dut; izan ere, hainbatetan aipatu bezala, nahiko kontzeptu berria da, eta ez dago bere inguruko ikerketa handirik. Behin urteak igarota, profesionalek egindako ikerketak areagotuko dira, eta umeak babesgabezia egoeran egotea sahiestuko da.

Azkenik, psikologo forentseen egonkortasuna bermatzea ezinbestekoa dela uste dut. Guraso alienazioa ezin da frogatu psikologoak eta umeak egun bakar batean izandako elkarrizketa batekin. Etengabeko ikerketa bat beharrezkoa dela uste dut, egunak iraun ahal dituen, psikologoak umea ezagutu dezan.

5. BIBLIOGRAFIA

5.1. Liburuak eta artikulak

AGUILAR, Lola., ESCUDERO, Antonio. eta DE LA CRUZ, Julia. “La lógica del síndrome de alienación parental de Gardner (SAP): Terapia de la amenaza”, *Revista de la asociación española de neuropsiquiatría*, 28 zk, 2008.

ARCH MARÍN, Mila eta JARNE ESPARCIA, Adolfo. “DSM, salud mental y síndrome de alienación parental”, *Papeles del psicólogo*, 30 (1) zk, 2009.

ARCH MARÍN, Mila eta PEREDA BELTRÁN, Noemí. “Abuso sexual infantil y síndrome de alienación parental: criterios diferenciales”, *Cuadernos de medicina forense*, 58 zk, 2009.

BOLAÑOS CARTUJO, Juan Ignacio. *Estudio descriptivo del Síndrome de Alienación Parental en procesos de separación y divorcio. Diseño y aplicación de un programa piloto de mediación familiar*. Departamento de Psicología de la Educación, Facultad de Psicología, Universidad Autónoma de Barcelona (UAB), 2000.

BOLAÑOS CARTUJO, Juan Ignacio. “El Síndrome de Alienación Parental. Descripción y abordajes psico-legales”, *Psicopatología Clínica, Legal y Forense*, vol 2, 3 zk, 2002.

Condición Jurídica y Derechos del Niño en relación a la vida familiar y privada en la jurisprudencia internacional, Secretaría General de Capacitación y Jurisprudencia Defensoría General de la Nación, Boletín de Jurisprudencia Internacional, 2012. (http://www.mpd.gov.ar/pdf/boletines_tematicos/Internacional%20-%202012%20-%20Condición%20jurídica%20y%20derechos%20del%20niño.pdf)

CORDIER, Bernard. *Aspects Législatifs et Administratifs de la Psychiatrie*. Maloine éditeur, París, 1987.

CLARAMUNT, María Cecilia. *Compendio de definiciones: Síndromes, Series de Cuadernos de Apoyo*. Asociación Armonie, 2007. Hemendik eskuratua: <https://accesoalajusticia.poder-judicial.go.cr/index.php/interes-violencia-sexual?download=873:compendio-de-definiciones-s-ndromes&start=20> [Azken kontsulta: 2021/05/17]

ESCUADERO, Antonio; GONZÁLEZ, Dolores; MÉZNDEZ, Rosa; NAREDO, Covadonga; PLEGUEZUELOS, Eva eta VACCARO, Sonia. *Informe del Grupo de Trabajo de Investigación sobre el llamado Síndrome de Alienación Parental*. Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad, Madrid, 2010.

GARCÍA GARNICA, María del Carmen. “El síndrome de alienación parental a la luz del interés superior del menor”, *Derecho privado y Constitución*, 23 zk, 201-248 orr.

GARDNER, Richard. “Recent trends in divorce and custody litigation”, *Academy Forum*, 29 zk, 1985.

GARDNER, Richard. *Parental alienation syndrome: A guide for mental health and legal professionals*, Creative Therapeutics, 1992.

GUERRA GONZÁLEZ, Jorge. “La alienación parental: Llamémosla «X», pero parémosla”, *Diario la Ley*, 9828 zk, 2021.

MONFORTE, José Domingo. “Relaciones postconvivenciales. Hijos menores, manipulación psicológica y alienación parental”, *Diario la Ley*, 9820 zk, 2021.

MONTOYA LÓPEZ, Adolfo Eduardo eta RIVAS DUARTE, Jaqueline. “La alienación parental y su regulación en México, una omisión en su legislación”, *Revista del Posgrado en Derecho de la UNAM*, 7 zk, 2017.

PAZ RODRÍGUEZ, Juan Ignacio. “El llamado «síndrome de alienación parental»”, *Estudios de Derecho Judicial*, 139 zk, 2007.

RELLOSO CAMPO, Lourdes. *¡Escapa del mal trato!: Identifica y protégete de las personas tóxicas que te rodean*, 2019.

SEGURA, Cristina; GIL, María Jesús eta SEPÚLVEDA, María Ángeles. “El síndrome de alienación parental: una forma de maltrato infantil”, *Cuadernos de Medicina Forense*, 43-44 zk, 2006.

TIFFON, Bernat-Nöel. *Psicología y Psicopatología Clínica, Legal, Jurídica, Criminal y Forense*. Bosch Editor, Barcelona, 2008.

TORREALBA, Alfredo Emilio. *El Síndrome de Alienación Parental en la legislación de familia*. Universidad de Chile, Facultad de Derecho, Chile, 2011.

VACCARO, Sonia eta BAREA, Consuelo. *El pretendido Síndrome de Alienación Parental: un instrumento que perpetúa el maltrato y la violencia*. Desclée De Brouwner, Bilbao, 2019.

VILALTA SUÁREZ, Ramón J. "Descripción del Síndrome de Alienación Parental en una muestra forense", *Psicothema*, 4 zk, 2011.

5.2. Araudia

Código Civil Federal, de 21 de agosto de 1928, México, 1928.

Prozedura Kriminalari buruzko Legea (PKL), irailaren 14ko 1882ko Errege Dekretua. Espainia, 1882.

Nazio Batuen Erakundea (NBE): Biltzar Orokorra, Haurren eskubideei buruzko Hitzarmena, 1989ko azaroaren 20a, Nazio Batuak.

Código Penal, Ley 24.270 de 25 de noviembre de 1993. Argentina, 1993.

Zigor Kodea (ZK), azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa. Espainia, 1995.

Prozedura Zibilari buruzko Legea (PZL), urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea. Espainia, 2000.

Lei Nº 12.318, de 26 de agosto 2010. Brazil, 2010.

Proyecto de Ley Orgánica de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia, 2021eko apirilaren 28a, 10 bis. artikulua. Espainia, 2021.

5.3. Jurisprudentzia

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia: GEEAE, Elsholz vs Alemania, 2000ko uztailaren 13a.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia: GEEAE, Mincheva vs Bulgaria, 2010eko irailaren 2a.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia: GEEAE, Piazza vs Italia, 2010ko azaroaren 2a.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia: GEEAE, Bordeianu vs Moldavia, 2011ko urtarrilaren 11a.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia: GEEAE, Saleck Bardi vs Espainia, 2011ko maiatzaren 24a.

Konstituzio Auzitegiaren Epaia: KAE 194/1996, 1996ko azaroaren 26a.

Auzitegi Gorenaren Epaia: AGE 512/2009, 2009ko ekainaren 30a.

Auzitegi Gorenaren Epaia: AGE 337/2007, 2007ko uztailaren 19a.

Oviedoko Lehen Auzialdiko Epaia: OLAE 378/2005 epaia, 2005eko ekainaren 13a.

Manresako Lehen Auzialdiko Epaitegiaren epaia: LAEE 9/2007 epaia, 2007ko ekainaren 4a.

Pondevedrako Probintzia Auzitegiaren Epaia: PPAE 106/2008 epaia, 2008ko otsailaren 2a.

Balear Uharteeko Probintzia Auzitegiaren epaia: BUPAE 47/2008 epaia, 2008ko otsailaren 7a.

Bizkaiko Probintzia Auzitegiaren epaia: BPAE 256/2008 epaia, 2008ko martxoaren 27a.

Sevillako Probintzia Auzitegiaren Epaia: SPAE 607/2008 epaia, 2008 abenduaren 11a.

Gijóneko Probintzia Auzitegiaren Epaia: GPAE 41/2011 epaia, 2011ko apirilaren 29a.

Nafarroako Probintzia Auzitegiaren Autoa: NAPA 188/2016, 2016ko ekainak 23.